

FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresaren negozioak iraun dezan egin beharreko jarduerak dira funtsezko jarduerak. Hauek hiru motatan bereizten dira enpresak ongi jardun dezan: produkzioa, arazoak konpontzea eta plataformako edo sareko jarduerak.

Bestalde, badira beste enpresen esku utz daitezkeen zenbait jarduera. Baina, aldi berean, beste hainbat ezin litezke utzi.



Gure enpresari dagokionez, egin beharreko jarduera ugari ditugu, eta, hasteko, horiek zehaztuko ditugu: gailu elektronikoen enpresekin egin beharreko akordioa, aplikazioaren sorkuntza, honen diseinua, aplikazioaren eta gailu elektronikoen arteko lotura, lanerako beharko ditugun tresnak eta guneak eskuratzea, publizitatea...

Gure aburuz, ekintza guzti hauek guk geuk egin beharrekoak dira, beste enpresa baten esku utzi gabe. Honen arrazoia negozioaren “know how” delakoa da, hots, ezagutza. Aipatutako jarduera guzti haiek beti enpresa barruan egin behar direla pentsatzen dugu, izan ere, guztiek



osatzen dute gure enpresaren muina. Horiek behar bezala egitea ezinbestekoa da gure aplikazioa arrakastatsua izateko, eta guk lortu nahi duguna geuk baino hobe inork jakingo eta ulertuko ez duenez, beste enpresek nekez egingo dute guk nahi

dugun hori guk nahi dugun eran. Aipatutako ekintzen artean, guztiak dira oso garrantzitsuak. Orain, proiektuaren hasiera honetan, publizitatea izango litzateke esanguratsuena, baina gerora begira, webgunea edota ekoizpenak hartuko lukete pisu gehiago.

Ezin dugu beste enpresa baten esku utzi gailu elektronikoen enprekin gailuak eta gure aplikazioa elkar konektatzeko akordiora heltzea, adostasun hori ezinbestekoa delako gure proiektuarentzat.. Ildo beretik doa aplikazioaren eta gailu elektronikoen arteko lotura egitea, hau da, biak konektatzea, izan ere, gure bizkarrezurraren osagai garrantzitsuenetakoak dira biak ala biak. Aldi berean, aplikazioaren sorkuntza eta diseinua ere ez dira ahuntzaren gauerdiko eztula, beraz, onena guk geuk egitea direla uste dugu. Ildo beretik, lanerako beharko ditugun tresnak eta guneak eskuratzeko prozesua guk egin beharreko gauza dela irizten diogu, guretzat lan egiteko erosoena bilatu nahi ditugulako, eta, nolabait esatearren, hautaketa "pertsonala" delako.

Bestalde, bada beste enpresa baten esku utz dezakegun jarduera bat: publizitatea. Hau bada guk egin beharrean beste enpresa batek egin dezakeen ekintza bat, izan ere, guk geuk egiteak ez digu inolako balio erantsirik ematen.